

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1112

AGINDUA, 2023ko otsailaren 13koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa / Fundación Pro Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko.

2022ko abenduaren 22an, eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailan, Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa / Fundación Pro Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko egin zen.

Fundazioaren patronatuak 2022ko abenduaren 13an erabaki zuen aldaketa, eta eskritura publikoan gauzatu zen Bilbon 2022ko abenduaren 22an Vicente M.^a del Arenal Otero notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 3362).

2023ko otsailaren 1eko idazki bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroak eskaeran antzemandako akatsak zuzentzeko eskatu zion fundazioari. Interesdunak akatsak zuzendu zituen, 2023ko otsailaren 10ean protokoloari erantsitako zuzenketa-eginbidearen bidez.

Eskabidearekin batera espedientean dagoen dokumentazioa aurkeztu zen.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau Agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorritz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua; eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak.

Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa / Fundación Pro Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, agindu honen datarekin, Euskal Autonomia

2023ko martxoaren 1a, asteazkena

Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko, Vicente M.^a del Arenal Otero notario jaunaren aurrean 2022ko abenduaren 22an egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 3362).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 13a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.